



❖ AKELARREA

Akelarre entsaioa bihar Goiz Eguzkin

Akelarre entsaioa izango da bihar, osteguna, Goiz Eguzkin, 20:00etan. Martxoaren 6an, Hernaniko Akelarrea Antiguon izango da, eta horretarako ari dira entsaioak egiten. Antiguora joan nahi duenak izena eman behar du Aker, Txili, Garin eta Ekos tabernetan. ||

❖ INAUTERIAK

Balorazioa gaur

Inauteriak joan dira, eta gaur balorazioa egiteko bilduko dira, Biterin, 19:00etan. ||

❖ GOIZ EGUZKI

Urteko Batzarra egingo dute gaur

Goiz Eguzki jubilatutako urteroko Batzar Orokorra egingo du gaur. Bertara deitu dituzte bazkide guztiak, eta hitz egiteko bost puntu izango dituzte. Tartean: 2009ko memoria eta balantze ekonomikoa. Bi deialdi egin dituzte: lehenengoa 16:00etan eta bigarrena 16:30etan. ||

❖ TXOTXONGILOAK

'Ipuin lapurra' txotxongilo saioa larunbatean

Txotxongiloak izango dira datorren larunbatean, Biteri kultur etxean. *Ipuin lapurra* emanaldia izango da, goizeko 11:00etan; prezioa 2,5 euro. ||

❖ JABETZE ESKOLAK

Izen ematea zabalik

Oraindik aukera bada Jabetze Eskoletako ikastaroei apuntatzeko. Ostiralera arte izena eman liteke hiru ikastaro hauetarako: 1) Erotismoa eta sedukzioa. 2) Emakumeentzako autodefentsa. 3) Laborategi esperimentalak. Deitu: 943 336 802. ||

❖ ERREMONTA - GALARRETA FRONTOIA

Erzilla: «Erabakia hartua dago; Galarreta itxi egingo da martxo bukaeran»

Martxoaren 31n bukatu egingo dira erremonte partiduak. Batez ere, azkeneko bi urtetan diru sarrerak jaitsi egin dira; apustuek behera egin dute eta sarrerak ere jaitsi egin dira, %10 inguru.

GALARRETAK atek itxiko ditu martxoaren 31n. Hori jakinarazi zuten atzo, prentsaurrean, Juan Antonio Erzillak eta Miguel Puertasek, enpresako gerenteak eta administrazio kontseiluko lehendakariak. Galarreta S.L. enpresak daramazki Hernaniko Galarreta eta Huarteko Euskal Jai frontoiak, eta guztira, erremontista eta langile, 50 pertsoneri eragingo dien erabakia da.

Diru sarrera berririk ez

Diru sarrera nagusiek behera egin dutelako hartu dute erabakia, batez ere, Miguel Puertasek atzo esan zuenez: «Apustuek behera egin dute, eta sarrerak ere jaitsi egin dira. Azken 5-6 urteetan joera hori ikusi dugu, baina batez ere, azken bi urteetan nabaritu dugu jaitziera». Diru sarrera berriak bilatu behar direla nabarmendu zuten, eta horretarako ikuspuntu berriak behar direla, «ideia berritzaileak».

«Orain dela 40 urte erremontea bukatua zegoen»

Juan Antonio Erzilla gerenteak adierazi zuenez, ideia berritzaileak behar ditu erremontea. «Gure enpresa orain dela 40 urte sortu zen. Orduan erremontea bukatua zegoen; erremontistek ez zuten lanik. Guk ilusioz heldu genion; frontoi berria egin genuen, eta proiektua aurrera ateratu genuen. Gaur ideia berriak falta dira. Agian, eboluzionatzen ez dugu asmatu».



Juan Antonio Erzilla eta Miguel Puertas, atzo prentsaurrean.

«Enpresa egoera onean uzten dugu, garbi, inork hartu nahi badu ere. Ekonomikoki ez dugu arazorik utzi, eta inoiz baino erremontista gazte gehiago dauzkagu plantillan».

«Gure enpresa orain dela 40 urte sortu zen. Orduan erremontea ez zegoen krisian... bukatua zegoen! Guk ilusioz heldu genion; frontoi berria egin genuen eta proiektua aurrera ateratu genuen. Gaur ideia berriak falta dira».

Enpresa egoera onean

Erzillak esan zuen, enpresa egoera onean utzi dutela. «Enpresak zorrik ez dauka; frontoia egoera onean dago, eta plantilla inoiz baino gazteagoa da. Bide berri batzuk ireki ditugu, eta hor gehiago sakondu beharko da: espon-

sorizazioak, frontoi txikieta-ko jaialdiak, telebista...».

Enpresa berriei deia

Erzillak azaldu zuen, atek zabalik dituztela enpresa berrientzat. «Guk bukatu dugu gurea; zikloa bukatu dugu. Baina margena utzi nahi izan

dugu, hilabete eta erdiko, proiektuari heldu nahi dion guztiarentzat. Laguntzeko prest gaude, eta gure ilusiorik haundiena litzateke, Galarreta berriz indartsu ikustea, ahalik eta denbora motzenez».

«Uste dut erremontea ez dela hemen bukatuko»

Bi arduradunek azaldu zuten, gogoia eta ilusioa badagoela Galarretan, eta espero dutela, enpresaren batek proiektuari heltzea. «Erremontea ez da hemen bukatuko. Ilusioa sumatzen da. Larunbatean, erremontistek sekulako estelarra jokatu zuten, eta publikoak aspaldiko obazio haundiena egin zuten; denoi egin zigutela uste dut. Berezia izan zen». ||

GLANEA

- Eguneko menua
- Garagardotegiko menua
- Garagardo aukera zabala
- Pierrade, Fondue, Kodilloa, Saltxitxak...

Argaraín kalea, 2 behea · 20120 HERNANI (Gipuzkoa) · Tel. 943 33 25 29

AMAIA

ARRAINTZA
ITSASBIAK
FRESKO ETA
IZOZTUAK

Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

Kixkal eta Akeit
tabernetan

Saria
2.000 €
baldia duen bidaia bat

kafea edo pintxo bat hartuta, zozketa batean parte hartuko duzue

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egumez**: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez**: **Chucla** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giroa nahastuta ibiliko da gaur. Hego-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, eta bera izango da protagonista. Zaparradak izango ditugu. Tenperaturak behera.

BIHAR Hego-mendebala bizi ibiliko zaigu bihar ere. Goizean eguzkia ikusiko dugu, eta arratsaldean lainotu egingo du. Eurijesak botako ditu arratsaldean. Min.11º Max.19º (euskaime)

❖ UDALA - PLENOA

Zaborrak biltzeko enpresa publikoa sortu nahi du Hernanik, Usurbil eta Oiartzunekin batera

Atzoko Plenoak erabakiari lehendabiziko onarpena eman zion. Horrez gain, 'Hondakinen Ordenantza' berria ere erabaki zen, eta beste 18 puntu ere bai.

PUNTU asko eztabaidatu ziren atzoko Plenoan. Horien artean, hondakinak kudeatzeko enpresa publikoa sortzeko buruz aritu ziren. Enpresa hori hiru herrik sortuko dute: Oiartzun, Usurbil eta Hernanik; eta helburua du, zaborrak bildu eta tratatzeko ardura, zuzenean, hiru herriek bere gain hartzea. Atzoko Plenoan lehendabiziko txostena aurkeztu zuten, eta horri eman zitzaion aprobazioa. Gobernu Batzordeak eta Ezker Batuak alde bozkatu zuten, eta gainerako taldeek kontra.

Iñaki Amonarraiz EAJko zinegotziak azterketa ekonomikoa ez zela egokia adierazi zuen: langile kopurua, zabor tonelada bakoitzaren balioa... Gobernu Taldeko Izaskun Txintxurretan adierazi zuen, zabor toneladaren prezioa ondo dagoela txostenean, Atez Ateko sistemak eta gaur egungo sistemak prezio ezberdinak dituztelako. Marian Beitialarrangoitiak adierazi zuen, langile kopuruari buruz iritzi asko entzun direla azken aldirian, eta Hernanik eredu sendoetan oinarritu duela kalkulu hori.

Enpresa horretan hiru herrik izango dute parte, eta txostenaren arabera, Hernanik

%49 izango du. Jose Ramon Chica PSE-EEko zinegotziaren ustez, eta Andoni Amonarriaren ustez, hori akats handia da. Hernaniri berez, %51 edo gehiago izatea tokatzen zaiola adierazi zuten. Marian Beitialarrangoitiak adierazi zuen, Hernaniri biztanlez gehiago dagokiola, baina ez terrenez; eta bigarren hori hartu dutela baremo bezala. «Gainera %49 izatea eredu demokratikoagoa eta partehartzaileagoa iruditzen zaigu».

Iñaki Arratibel Hamaikabateko zinegotziak esan zuen, erabaki hori Hernaniren interesen kontrakoa dela.

Beste erabakiak

Horrez gain, atzoko Plenoak beste 19 puntu erabaki zituen. *Hondakinen Ordenantza* berria erabaki zen atzo. Bertan zehazten dira, Atez Ateko sistemaren arauak zein diren, eta herriarrek zein betebeharrak izango dituzten. Ezker Batuak eta Gobernu Taldeak alde bozkatu zuten, eta gainerakoek kontra.

II. Berdintasun Plana ere onartu zen; Martxoaren 8ko adierazpena; Telefonía Mugikorreko Ordenantza Fiskala; Hernaniko Hirigune Historikoa berritzeko lurrak eskuratzea; eta abar. ||

Udal Kirol Patronatua, Batzorde soil izatera pasako da

HERNANIKO Udal Kirol Patronatuak, 'autonomia' galduko du, eta Udaleko beste Batzorde bat izatera pasako da: hirigintza, kultura edo euskara diren bezala. Atzoko Plenoan hala erabaki zuten, aho batez; legalki, uztailaren 1etik aurrera Batzorde gisa funtzionatuko du. Kirol Patronatuak berezitasun batzuk bazituen, beste Batzordeek ez zituztenak. Patronatua sortu zen hiru helburu betetzeko: 1) Nolabaiteko 'autonomia' izateko Udaletik; 2) Gestio administratiboa efikazagoa izateko eta Udalar gestioa arintzeko; 3) Kirol taldeek, elkarteek eta erabiltzaileek ere Zuzendaritzan parte izateko, eta hitza izateko. Udalaren iritziz, helburu horiek ez dira bete izan, eta horregatik Patronatu izateari utzi egingo dio. ||

👁️ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Atez atekoa ala errauste-planta?

Atez atekoaren alde egun hauetan agertu diren eskutitzetan, badirudi bostgarren zabor ontziaren alde gaudenak errauste-plantaren alde gaudela. Ba hori ez da horrela. Ahal den gehien berziklatzea nahi dugu eta hondakin edo erreto ahalik eta gutxien utzi. Horixe da hain zuzen ere, atez ateko sistemaren helburu berbera.

Eta beste gauza bat argitu nahi nuke. Noiz, non eta nori galdetu zaio zer nahiago dugun? Hernaniko Udal Aldizkariak 7. alean esaten duena ez da egi osoa ere 'AUKERA...tú. Las decisiones que se han tomado entre todos'. Bilera asko egin dira, bai, baina erabaki nagusia hartu ondoren.

Isabel Zubillaga Huici

ITSU, GOR ETA MUTU

Ez adierazpenik, ez bilketarik, ez moziarik, ez salaketarik, mutu, torturaren aurrean, itsu, torturatuen goputz urratuen aurrean, gor, torturatuen garrasien aurrean, mutu, itsu eta gor geratzen da klase politiko legala, legala bai, baina ustela, ustel kiratsa dariola, nazka ematen duela.

Josu Arrieta



◆ MENDIRIZ MENDI

'Hernani ezagutuz' ibilaldira urtero eta jende gehiago animatzen da

Pozontarri eta Muniskueko megalitoak ikusi zituzten joan den igandean, Oindi mendiko zokoak ezagutzera joan ziren mendizaleek. Txuso Gomez eta Iñaki Sanz izan ziren azalpenak ematen, gero eta jende gehiago biltzen duen *Hernani ezagutuz* mendi ibilialdian. Aurten, 74 lagun animatu dira, Hernani eta inguruetakoak eta horregatik, erabaki dute, datorren urtean ere egitea. ||

Atez ateko zalantzak argitzen

Erabilitako boligrafoak nora bota behar dira?

Errefusera.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Sagastialden. 2 logela, sukaldea, komuna eta saloia, amueblatua. (27.000.000 pzt).
Deitu: 637 959 992 / 630 118 545.

Garajea alokairuan Akarregin (autokarabana batentzako). Deitu: 609 767 673

Pisua salgai Karabeleñ. 60m2, 2 logela, sala, sukaldea eta komuna. Kalefazioa badu. Berritua.
Deitu: 627 403 119.

Pianoa salgai. Yamaha U1F modelo, bigarren eskuko. Ongi zaindua. 2.500 euro.
Deitu: 629 763 041.

ETXEO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai...
Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatua, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea.** Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berbera, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2).** 943 55 76 76

Zure arazo eta blokeo pertsonalekin lagunduko zaitut. Bide hauek erabiliz: **Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach...**(Alicia C.C.). Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbera, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

DORRONSORO
OKINDEGIA

DORRONSORO
Ogi egin berria
beti zure eskura

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
⇒ **Lizeaga 4an.**
Ogia eta bolleria aukeran.
Orduetgia: 07:00-14:00/17:00-21:00

⇒ **Akarregi poligonoan, obradore nagusia, denda eta kafetegia.**
Orduetgia: 05:30-13:30/16:00-19:30